

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERGANZOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea Berganzoko herrian ehiza barrutia eratzeko

Berganzoko Administrazio Batzarrak ehiza barrutia (matrikula: VI-10113) berritzea erabaki du. Ehiza barrutiaren titularra aipatutako administrazio batzarra da, jabe taldearen ordezkartzan.

Ehiza barruti horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera hori, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten. Ulertuko da isilbidezko baimena eman dutela iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, hamabost egun balioduneko epean, kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek, eta administrazio batzarrak baimena izango du ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza barrutian sartzeko.

Lurzati publikoen barruan, onura publikoko mendi (OPM) hauek sartzen dira:

- OPM: 151; JUAN ZAMARRO (partziala), Berganzoko Kontzejuarena.
- OPM: 152; PEÑA CAÍDA, Berganzoko Kontzejuarena.
- OPM: 153; LA RASSA, Berganzoko Kontzejuarena.
- OPM: 220; ARBINA (partziala), Berganzo, Ozio eta Gatzaga Buradongo kontzejuena.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Berganzo, 2022ko apirilaren 25a

Lehendakaria

EMILIO MANUEL LÓPEZ GUTIÉRREZ